



## Zurriolako Ataria

60. alea

2019-05-10

### KM literatura sariak

Aurreko larunbatean Donostiako udaltxean banatu ziren Koldo Mitxelena literatura sariak. Parte hartutako 1043 lanetatik emandako 19 sarietatik Zurriolak 5 sari jaso zituen (4 komikigintza arloan). Hauexek dituzue saritze-saioaren laburpen [bideoa](#) eta informazio gehiago ematen duen [webgunea](#). Bejondeiela saritu eta aipatuei eta animo parte hartu duten Zurriolako ikasle guztiei!



### Hitzaldia ikastola ereduaz

Datorren asteazkenean, maiatzak 15, 17:30ean **Zigor Ibarzabal** ikastolen Elkarte Zuzendari Pedagogikoak hitzaldia emango du Hurrari. Ibarzabalek Ikastolen proiektu pedagogikoaz ariko da. Ibarzabalen hitzaldia handik astebetara osatuko da Beñat Azurmendi EHko Prestakuntza arduradunak HHko markoaz egingo duen hitzaldiarekin. Bi emanaldi hauek ekainean gurasoekin egingo dugun Zurriolako Hezkuntza Proiektuaren proposamen aurkezpenaren egitarauaren barruan kokatzen dira.



### Ikasle Ohiak: gaur da azken eguna!

Gaur zortzi jakinarazi genuenez **maiatzaren 18an** Hurrari egingo da ikasle ohien bazkaria. **Gaur** da azken eguna izena emateko **hemen**. Animatu eta zabaldu berria zure inguruan!



### Altxorraren bila bihar

Zurriola ikastolaren 50. urteurrena dela eta HH5eko guraso talde batek **ALTXORRAREN BILA** jolas entretengarria antolatu du Uliako Lore Baratzetan bihar, 10:30ean. Jolasaren ondoren gure txikiak indarrak hartzeko hamaiketako ere izango dute. Animatu eta parte hartu! Izen emate [galdetegia](#).



### HH3koak Zubietan

Maiatzaren 2an txangoa egin zuten 3 urteko haurrek Zubietara. Baserriko animalia desberdinak ikusiaz asko gozatu zuten ibilbidean zehar. Bazkariarekin indarrak hartu ondoren, parkean eta kanpoko frontoian jolastuz agurtu zuten Zubieta.



### Amets bat

Asteazkenean Errealak antolatzen duen Amets bat proiektua dela eta, Zubietara joan ziren LH5eko irakasle zein ikasleak. Bertan emakumezkoen entrenamendua ikusi zuten eta izugarri animatu zieten, asteburuko finala irabaz dezaten! Mutilen entrenamendua ikusi, jolas batzuk egin... Bazkalduta ondoren, Aquariuma bisitatu zuten!



### Zozketaren irabazlea

DBH4ko ikasleek saldutako txartelen zozketa burutu zen eta saritua Maria Urreiziti izan da. Zorionak!



**IMENALDIA IKASTOLAKO LEHEN FAMILIEI:** Hungigarria eta oso polita lehenengo larunbatean Ikastola Egunaren baitan, Zurriola Ikastola sortu zuten lehen familiei egindakoa. Zaila da bertan bizitakoa azaltzen baina hona argazki eta bideo [bidetara](#).

### OHARRAK / AGENDA:

- **HH eta LH:** Guraso bilera orokorrak. [Datak, orduak eta lekuen zehaztapena](#).
- **HH4:** Beizama. Txiba-Jostailu taldeak maiatzak 14-15. Txobxongilo-Kometa taldeak maiatzak 16-17. 9:00etarako etorri ikastolara.
- **LH1:** Baserria Barria. Maiatzak 22-24. (Zirkularra datorren astean).
- **LH1-2:** Bakarkako guraso-bileretarako hitzordu-papera geletan. Maiatzak 15 (LH1) eta Maiatzak 16 (LH2).
- **LH2:** Baserria Arantza. Maiatzak 22-24. Zirkularra.
- **LH2:** EITB-ra irteera. Goizez. A taldea maiatzak 14 eta B-C maiatzak 15.
- **LH4:** Okendo Kultur Etxea, liburutegia eta inguruak. Egun osoko irteera. Maiatzak 17.
- **LH5:** Uliara Aranzadiren eskutik. Goiz pasa. Maiatzak 16.
- **LH6:** Heziketa afektibo-sexuala eta Hezkidetzak. Ikastaroak. Datozeen asteetan saioka.
- **DBH2:** Bela ikastaroa. 2C maiatzak 13, 2A maiatzak 14 eta 2B maiatzak 16. 15:00etan eskolak portuan amaituko dira.
- **DBH3:** Piragua ikastaroa. 3A maiatzak 15. 8:00etan eskolak portuan hasiko dira.
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Ikasleen [emanaldiak](#) / Mimo-Joserra, maiatzak 15-16. 18:00 / Maiatzak 13-14ko Mikelen Klown saioa bertan behera.
- **Zurriola Musika Eskola:** Udaberri musikatua. [Programazioa](#).
- **Eskola Kirola:** 22. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Maiatzak 10-12](#).
- **Parketarrak:** Egunik onenak elkarrekin [jolasean](#).

**ZURRIOLA IKASTOLA BATXILERGOA**

ARTE BATXILERGOA DUEN IKASTOLA BAKARRA

AURREMATRIKULAZIOA  
Maiatzak 2-14

BATXILERGO MODALITATE GUZTIAK  
ZIENTZIAK  
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK  
ARTEAK

[www.zurriolalikastola.eus](http://www.zurriolalikastola.eus)  
943272587

Zurriola Ikastola